

Herri mailako 'Kronika Sega Apustua' datorren larunbatean

■ Martinegin jokatu da arratsaldeko 19:30etan hasita ■ Bi bikote txanda librean eta bi banakako aterako dira, denak alkarren kontra ■ Sarrera: 500 pta.



Joxe Salaberria eta Kontxi Zubiondo.



J.M. Irazu eta 'Oxan'.



'Larra'.



Asier Elizondo.

DATORREN larunbatean, Martinegiko San Fermin jaien barruan, sega apustu berezi bat jokatu da. Lehenengo Herri mailako *Kronika Sega Txapelketa* izango da. Bertan Hernaniko 3 auzotako ordezkariak, (Portu, Martinegi eta Osiñaga) eta Kronikako ordezkariak neurtuko dituzte indarrak.

TXANDA LIBREAN EDO BAKARKA

Portuko ordezkaria Axier Elizondo izango da. Martinegikoa 'Larra'. Osiñaga bailaratik bikotea izango da, Joxe Salaberria eta Kontxi Zubiondo; Kronikatik ere bikotea aterako da: Jexux Mari Irazu eta 'Oxan'. Bikoteek txanda librean egin-

go dute lana, eta Axierrek eta Larrak aldiz, bakarrik. Gutxi-gorabehera orduerdiko lana egin beharko dute, saila nork azkarrago moztu. Talde bakoitzak bere harraiztailea izango du.

LARUNBATEAN 19:30ETAN Apustua Martinegin jokatu da, Txalalalde kanpan (Gomaytex atzekaldean), arratsaldeko 19:30etan. Sarrera 500 ppta. Eurria ari badu atzeratu egingo da. □

■ WATERPOLOA

Bi jokalarik eta entrenatzailea Euskal Herriko selekzioara

■ Onintza Esnal eta Yoli Pastor jokalariek eta Ibon Mendoza entrenatzailea deitu dituzte.



Hernaniko taldea Kiroldagiko igerileku txikian.

HERNANIK aurten egin duen denboraldi bikainaren bidetik, albiste onak iritsi dira berriro ere. Nesken taldeko hiru kide, Euskal Herriko selekzioak deitu ditu Portugala joateko. Onintza Esnal eta Yoli Pastor jokalariek eta Ibon Mendoza entrenatzailea dira selekzioarako deitu dituztenak.

PORTUGALEN TXAPELKETA

Hernaniko ordezkariak, Por-

tugalera (Coimbrara) doaz, datorren asteburu honetan (uztailak 6, 7 eta 8), nazioarteko txapelketan Euskal Herriko selekzioa defendatzera. Kontutan izan behar da, waterpolo utzita gero aurten hasi direla neskak berriro ere, eta bertako 3 kidek selekzioarako deia jasotzeak zerbait esan nahi du aurtengo denboraldi osoan lanean aritu direnen alde. Ea berri onak ekartzen dizkiguten Portugaldik ere. □

■ ERREMONTA

Luis Mari Zubeldiak agur esango dio Galarretari

■ Asteasuarrak gaur du Galarretako azken partidua.

HAINBAT urtetan pelotalekuan ikusi ahal izan den pelotariak, aurten utziko du erremonta. Gaur arratsaldeko jaialdian jokatu du Galarretako bere azken partidua.

EZKURRA-ZUBELDIA

Hernaniko frontoiari agur esateko Ezkurrekin egingo du bikote Zubeldiak. Aurkari,

Altuna II eta Hernanin bizi den Etxabe azpeitiarra izango ditu. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da, eta Zubeldiaren agurreko partidua jaialdiko bigarrena izango da. Zubeldia Galarretatik gaur agurtuko bada ere, enpresak eta bere pelota lagunak omenaldia eskeiniko diote abuztuan. □

HIZKUNTZAK

A starbe
INGELESA eta FRANTSESA

IKASTARO BERRIAK
MAILA GUZTIAK.
CAMBRIDGE- H.E.O.

Berri ematea eta izen ematea:
HELBIDE BERRIA
Montebideo kalea 1, 1^{goa} A
(EPO ikastetxe ondoan)
Tel: 943 551 201
617 237 387
20120 HERNANI



Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua URRA - REKLUSA / LARRE - AIZPURU II
- ⇒ 2. partidua EZKURRA - ZUBELDIA / ALTUNA II - ETXABE
- ⇒ 3. partidua ALTUNA I - IRIARTE / ZEBERIO II- TXIKURI
- ⇒ 4. partidua AGIRRESAROBÉ - URKO / BEREZIARTUA- ETXEBERRIA II

Hiru begirale eta bi hezitzaile behar dituzte Gazte Txokoan

■ Urteko martxarako eta *Kuadrilategi* egitasmo berrirako behar dira ■ Kurrikulumak ahalik eta azkarren utzi Gazte Txokoan ■ Informazioa: 943 270033.



Gazte Txokoan koadrila, denbora pasa jarrita.

HERNANIKO *Gazte Txokoa* 12tik 17 urte arteko gazteak denbora libre pasatzeko ego-kitutako lokala da. Urte osoan ikastaroak, irteerak, tailerrak... denetik antolatzen dute. Ikas-turtea bukatuta datorrena prestatzen hasi dira dagoeneko.

BI HEZITZAILE

Gazte Txokoko urteko martxa eramateko bi hezitzaile behar dira. Lan hori hartzeko 20 urte

baino gehiago izatea derrigorra da. 10 hilabeteko kontratua izango da, irailetik ekainera eta astean 22 ordu lan egin beharko dituzte hezitzaileek, goiz eta arratsalde.

3 BEGIRALE

Gazte Txoko barruan *Kuadrilategi* egitasmo berria ere martxan jarriko dute aurrean. Helburua gazteen eguneroko bizitza euskalduntzea da, eta

kuadrilak euskalduntzetik lortu nahi dute hori. Aurrera eramateko 3 begirale behar dituzte, 18 urtetik gorakoak. Astean 10 orduko lana izango da eta irailetik ekainera artekoa hau ere.

Batean ala bestean lan egin nahi duenak kurrikuluma eta datuak Gazte Txokoan utzi (Aristizabal kalea 5, behe) ahal dela gaur bertan. Informazio gehiagorako Urtxintxara deitu. □

■ FUTBOLA

'Donosti Cup' eko partiduak ari dira jokatzeko Zubipen

■ Hainbat herrialdeko taldeek hartzen duten parte txapelketan ■ Donostia inguruko 10 zelaietan jokatzeko da ■ Gaur partiduak izango dira, goiz eta arratsalde.

'DONOSTI CUP' futbol txapelketa jokoan da uztailearen 2tik 7ra bitartean. Donostian antolatzen da 20 urtez azpikoentzako nazioarteko txapelketa hau. Aurtengoan 170 talde inguru ari dira jokatzeko, 7 kategoria ezberdinetan banatuta. Partiduak Donostian eta inguruko hainbat futbol zelaietan jokatzeko dira, eta astelehena ezkerotik Zubipen ere bai.

HAINBAT HERRIETATIK Txapelketa hau ez da futbol lehiaketa arrunta. Antolatzaileek hainbat ekintza antolatzen dituzte eta *Donosti Cup* hainbat nazioetako jendearen arteko topagune bihurtzen da. Aurtengo partehartzaileen artean, Euskal Herri osoko ordezkariak gain honako

herrialde hauetako taldeak daude: Italia, Frantzia, Noruega, Espainia, Eslovakia, Eskozia, Estatu Batuak, Portugal, Suedia, Suitza, Argentina, Panama, Venezuelak...

BIGARREN FASEA

Hiru egunetan lehen faseko partiduak jokatu dira. Orain, bigarren fasea hasiko da. Gaur goizeko 9:00etan hasita egun guztian zehar izango dira partiduak Zubipen. □



Atzoko partidu batean portugaldarrak eta euskaldunak.

Iruñako San Fermiñak zuzenean Molotoff irratan

■ Euskal Herriko hainbat irrati elkarlanean hasi dira programak elkarbanatzeko.



Molotoff irrati esataria Egunkaria errepasatzen.

AURREKO asteburuan Arrosan elkartu dira Euskal Herriko hainbat irrati. Aspaldi buruan darabilkiten elkarlanerako ideia martxan jartzeko pausoak eman dituzte aurtengoan. Zenbait programa irrati bakarrean emititu beharrean, momentu berean, gehiagotan ematea da asmoa.

IRUÑATIK ZUZENEAN 32 IRRATI

Bihar San Fermiñen hasiera-ko txupinazioa emitituko dute Iruñatik zuzenean, Molotoffek eta beste 32 irratiak. Elkarlaneko lehenengo emisioa izango da, baina, aurrera begira bide horretan segitzeko asmotan dira. □

PRODUKTUEN PREZIOAK (ORDIZIAKO AZOKATIK)

Lehenengo San Joan sagarrak 300 pezetan kiloa

■ Inbernaderoz kanpoko baina 500-600 pta kiloa. ■ Arkumea 560-600 pta kiloa.

Baina	450-600 pta kiloa.	Kanpokoak	2.800 pta kiloa
Frantziako baina	350 pta kiloa.	Ardi gazta	1.700-2.300 pta kiloa
Aza	100-150 pta bakoitza.	Behi gazta	850-1700 pta kiloa.
Kogoiolak	50-75 pta bakoitza.	Nahasketa	975-1400 pta kiloa.
Tomatea	500 pta kiloa.	Hauntz gazta	2.000-2.500 pta kiloa.
Patata	70-125 pta kiloa.		
Patata berria	125-150 pta kiloa.	Kantauriko antxoak	820 pta kiloa
Baba txikia	250-400 pta kiloa.	Xapua	1.650 pta kiloa
Gindila	800 pta kiloa.	Atuna	1.650 pta kiloa.
Bertako onddoak	4.000 pta kiloa.	Bonitoa	1.980 pta kiloa.
		Izokia	1600 pta kiloa.

ODOL EMATEA

95 odol poltsa bildu ziren joan den asteartean Anbulatorioan

■ Emailleetatik 2 berriak ziren ■ Organuak emateko berri bat apuntatu zen.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Irigoyen Elkano 2 ☎ 943 552087
- ▶ Gaez: Oa Usurbil. 1 Poligonoa ☎ 943 376076